

# HAUSNARKETA AKTIBORAKO FITXAK

## “ZURE MODUKO NESKA-MUTILAK”

### HELBURUAK:

- Homofobiagatik jasaten den jazarpenaren berri eman eta kontra egin.
- Gazte eta nerabeekin hausnartu, ondoan gay, lesbiana, bisexuala edo transexuala den ikaskide bat izanda hartu ohi diren jarreraren inguruan.

### EDUKIA. Honekin batera hiru fitxa banatu ditugu:

- **1. fitxa, INKESTA “Zer egingo zenuke zure ikaskidea gay, lesbiana edo transexuala dela jakingo bazenu?”**
- **2. fitxa, “Ikasleen jarrera sexu-joerak direla eta”.** Fitxa honetan bi taula daude: lehenengoan ageri diren datuak benetakoak dira, Coslada (Madril) eta San Bartolomé (Kanaria Handia) hirietako 4.600 ikaslerekin egindako ikerketa batetik hartuak; bigarren taula, berriz, hutsik dago, hain zuzen, taldeak galdera berberei erantzundakoarekin betetzeko.
- **3. fitxa, LEKUKOTZAK. “Nerabearoa eta sexu-aniztasuna”.**

### FITXEKIN LAN EGITEKO PROZEDURA:

Jarduera osoaren iraupena: **1 ordu edo 2, gutxi gorabehera.**

#### 1. eta 2. fitxak:

1. Lehenik eta behin, irakasleak, begiraleak edo pertsona arduradunak 1. fitxa banatuko du taldeko neska-mutilen artean, erantzunak bete ditzaten. Ariketa hau egiteko aurreikusitako denbora 20 minutukoa da, ariketa nola egin azaltzeko eta inkesta betetzeko behar den denbora osotara kontuan hartuta.
2. Bigarrenik, taldearen ardura duen pertsonak fitxa guztiak bilduko ditu, eta jasotako datu eta erantzunekin 2. fitxa beteko du, hala, beste ikerketan jasotako datuen eta talde horretan jasotako datuen arteko alderaketa erakusten duen fitxa lortuko du.
3. Hirugarren urrats batean, arduradunak 2. fitxa banatuko du neska-mutilen artean, aurreko ikerketan ateratako datuak nahiz talde horretan ateratakoak agertzen baititu eta, beraz, hausnarketa eta eztabaida sortzen duen materiala baita. Eztabaida hau egiteko aurreikusitako denbora 45 minutukoa da, gutxi gorabehera.

### Eztabaidarako proposamenak eta galderak:

- Bi taulen arteko antzekotasunak eta desberdintasunak.
- Zein jarrera hartzen du gehiengoak? Zergatik da hori?
- Portzentajeak aldatu egiten al dira? alderik ba al dago pertsona homosexualek eta transexualek jendearengan sorrarazten dituzten jarreraren artean? Erantzuna baiezkoa baldin bada, zergatik da hori horrela?

**3. fitxa:** 3. fitxa 2. fitxa betearekin batera banatu daiteke edota, bestela, geroago. Hirugarren fitxa horretan iritzi batzuk azaltzen dira eta helburua da eztabaidak sortzea talde txikitik, lehenik, eta oro har geroago, ikasleek fitxan jartzen duenarekiko zer jarrera hartzen duten eta zenbateraino identifikatzen diren ikusteko. Jarduera hau egiteko aurreikusitako denbora 45 minutukoa da gutxi gorabehera.

### Eztabaidarako proposamenak eta galderak:

- Galdetu neska-mutilei ea ezagutzen duten lekukotzetan deskribatzen diren egoera antzekoak bizitu dituen norbait.
- Hausnartu zergatik gertatzen diren deskribatutako egoerak: homosexualitateari, lesbianismoari eta transexualitateari buruz eraikita dauzkagun estereotipoak, aurreiritziak etab.
- Gazte eta nerabeen partaidetza bultzatzea honelako galderak eginez: “Zer egingo zenuke zuk honelako egoeraren baten aurrean egongo bazina?”, “Nola uste duzu sentitzen dela pertsona bat deskribatutako jazarpen egoerak ezagututa?”, “Zer egin dezaket nik nire institutuan, taldean edota nire ingurunean halako egoerarik ez gertatzeko?”.



## 2. FITXA:

### IKASLEEN JARRERA SEXU JOERAK DIRELA ETA.

**ITURRIA:** Actitudes ante la diversidad sexual de la población adolescente de Coslada (Madrid) y San Bartolomé (Gran Canaria). Ikerketa hori egiteko 4.600 inkesta baino gehiago egin ziren. COGAM. 2007

	Gay	Lesbiana	Bisexuala	Transexuala
LEKUZ ALDATZEN saiatuko nintzateke.	16,3%	8,3%	12,9%	18,7%
Ez nuke ezer egingo, baina PIXKA BAT EZEROSO SENTITUKO NINTZATEKE.	25,2%	25,8%	23,6%	23,6%
Ez nuke nire jarrera aldatuko, DENAK BERDIN JARRAITUKO ZUEN.	47%	48,5%	41,0%	34,8%
KONFIANTZA HANDIAGOA sentituko nuke pertsona horrekin, eta lagundu egingo nuke.	27,3%	25,3%	16,6%	14,8%
Pertsona horrekin LIGATZEN SAIATUKO NINTZATEKE.	1,4%	6,9%	3%	0,7%

### Nire taldearen datuak

	Gay	Lesbiana	Bisexuala	Transexuala
LEKUZ ALDATZEN saiatuko nintzateke.				
Ez nuke ezer egingo, baina PIXKA BAT EZEROSO SENTITUKO NINTZATEKE.				
Ez nuke nire jarrera aldatuko, DENAK BERDIN JARRAITUKO ZUEN.				
KONFIANTZA HANDIAGOA sentituko nuke pertsona horrekin, eta lagundu egingo nuke.				
Pertsona horrekin LIGATZEN SAIATUKO NINTZATEKE.				

### 3. FITXA:

#### LEKUKOTZAK<sup>1</sup>. NERABEZAROA ETA SEXU ANIZTASUNA.

- “Gogoan dut nesken komunetara jaitsi nintzela batean eta ate batean honela jartzen zuela idatzita: lesbianen sekta hil beharra dago. Nire izenaren lehen letrak ageri ziren, baita nire neska-lagunarenarenak ere”.
- “Bada ikaskide bat arazo asko izaten ari dena, lehengo urtean neska batekin irteten egon zelako, eta horrek bere eragina izan du institutuan. Iseka egin diote, bollera, tortillera, txiste homofoboak entzun zitezkeen eta halako gauzak”.
- “Mutil batzuk maritxu deitzen zidaten eta adar joka hasten ziren aldageletan, xaboi-pastilaren kontu horrekin eta abar ...”
- “Gauzak idazten dituzte arbelean, Ines bollera eta antzeko gauzak. Lehengo urteko tutorak ikusi, ikusi zituen idazki haiek, baina besterik gabe ezabatu zituen”.
- “Beste mutikoak edozein txorakeriagatik zirikatzen ninduten, lagun guztiak kentzea lortu zuten arte. Hiru urte haietan lagunik gabe utzi ninduten”.
- “Gehiago zirikatu naute nire sexu-joera dela eta daukadan minbiziagatik baino. Egia esan, asko zirikatzen naute. Eskolako lehen urtea amesgaiztoa izan zen, benetan ikaragarria. Ni pasatzen nintzen bakoitzean lerro guztian entzun zitezkeen: estali ipurdia, estali ipurdia”.

<sup>1</sup>ITURRIA: Actitudes ante la diversidad sexual de la población adolescente de Coslada (Madrid) y San Bartolomé (Gran Canaria). Ikerketa hori egiteko 4.600 inkesta baino gehiago egin ziren. COGAM. 2007

#### **BALIABIDEAK.**

##### **Euskaraz eta gaztelaniaz:**

material hauek guztiak [www.aldarte.org](http://www.aldarte.org) helbidean daude eskuragarri.

- Ana Ureta, Inmaculada Mujika, *Sexu-joerak: gazteentzako gida*, ALDARTE, Bilbao, 2006
- Lala Mujika, *Denbora librean lantzeko liburuxka: homosexualitatea eta lesbianismoari buruzko aurreiritziak*, ALDARTE, Bilbao, 2004
- Hainbat egile, *Lan-liburuxkak: lehen-hezkuntzako 3. zikloa*, ALDARTE “Sexu-aniztasuna eta familia berriak Proiektua”, Bilbao, 2006
- Hainbat egile, *Irakasleentzako didaktika-gida: lehen-hezkuntzako 3. zikloa*, ALDARTE “Sexu-aniztasuna eta familia berriak Proiektua”, Bilbao, 2006

##### **Gaztelaniaz:**

- Actitudes ante la diversidad sexual de la población adolescente de Coslada (Madrid) y San Bartolomé (Gran Canaria). Ikerketa hori egiteko 4.600 inkesta baino gehiago egin ziren. COGAM. 2007 (Hemen eskuragarri: [www.cogam.org](http://www.cogam.org))
- Raquel Platero, Emilio Gómez, *Herramientas para combatir el bullying homofóbico*, talasa Ediciones, Madril, 2008.
- Ikus-entzunezko materiala: “homofobia entre adolescentes” izeneko erreportajea. Esteka: [www.rtve.es/alacarta/player/308778.html](http://www.rtve.es/alacarta/player/308778.html).